

Autoa Erosteko Gidak aholkuak emango dizkizu erabakirik onena hartzen laguntzeko



Nolako autoa behar duzu eta zein da zure aurrekontua?

Lehenengo erabakia gure beharrianak zeintzuk diren, autoari eman nahi diogun erabilera eta daukagun aurrekontua argi edukitzea da.



Egoera

Auto berria edo bigarren eskukoa



Auto-mota

Konpaktua, berlina, lur orotakoa...



Erregaia

Diesel, gasolina, hibridoa...



EKO autoa

Ingurumena zaintzeko kezka dutenentzat



Nola ordaindu nahi duzu?

Ordaindu baino lehen, kontuan hartu horretarako dauden aukera guztiak. **Simulagailuak** erabili kuota kalkulatzeko.



Aurrezkiak

Gehiago ez zorpetzeko aukera ematen du, baina daukazun likidezia arriskuan jar dezake.



Finantzaketa kontzesionarioan

Autoa erosterakoan, batzuetan, prezioan deskontua dago, bertan finantzatzeko aukeraren baldintzarekin.



Finantzaketa zure bankuan

Konfiantzako erakundeak gehien komeni zaizkizun aukerak eskainiko dizkizu, bezero izateagatik aparteko eskaintzekin.

Zeintzuk dira egin beharreko tramiteak?

Ordaindu behar dituzun zerga guztien berri ematen dizugu, aukera ditzakezun laguntza eta diru-laguntzekin batera.



Zirkulazio-zerga

Udalari urtero ordaintzen zaio.



Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Auto berria erositako prezioaren % 21a.



Ondare-eskualdatzeak

Bigarren eskuko autoa erostean ezarritako zerga.



Matrikulazio-zerga

Autoa lehendabizikoz Espainian matrikulatzearen ondoriozko zerga.



Diru-laguntzak

Lor ditzakezun laguntzak eskatu (bizi zaren Autonomia Erkidegoaren arabera).

Zein da gehien komeni zaizun aseguruua?

Badira zenbait aseguru-modalitate zure beharriari egokitutako estaldurekin.



Hirugarrenentzako aseguruua

Ezinbestekoa da zirkulatzeko, Derrigorrezko Erantzukizun Zibilarengatik eskatzen da.



Arrisku orotako aseguruua

Poliza horrekin, norberak izandako kalteak zein beste eragindakoak estal daitezke.



Arrisku Orotakoa frankiziarekin

Aldez aurretik zenbateko edo ehuneko jakin bat hartzen da norbere gain, primaren kostua merkatze aldera.

www.kutxabankautoerostekogida.eus